

Joan Mari Irigoien

## HOMO SAMARIENSIS

### SARRERA

Orain dela hiru bat aste telefono-dei bat izan nuen.

—Rakel López naiz, eta Elhuyar Fundazioan egiten dut lan, marketin-sailean, eta hara: Elhuyar Fundazioak Elhuyar Zientzia eta Teknologiaren Hiztegi Entziklopedikoa argitaratuko du aurki, eta...

—Pozten naiz! —moztu nuen, lagunak baititut Elhuyarren eta bai bainekien proiektu horretan murgilduta zebiltzala.

—Eta zera nahi genuke —segitu zuen Rakelek—, aurkezpena zuk zeuk egitea: zientziaren zabalkundeari buruzko hausnarketa bat-edo...

—Barkatu, Rakel, baina hausnarketak ez doazkit batere ongi, ni ez bainaiz behi bat, ulertuko duzu... —mihira etorri zitzaizkidän lehen hitzak jaurti nizekion.

—Zeeer...?! —asaldatu zitzaidan Rakel.

—Ez naizela, alegia, ez *homo caprinus* eta ez *homo taurus* bat —esan nion, neurari eutsiz; orduan, baina, Elhuyarreko lagunak burura etorri eta haien alde zer-bait egin behar nuela otu zitzaidan—: Baina orain dela gutxi —jarraitu nuen— *homo samariensis* bat aurkitu nuen hemen Altzan, Kristoren garaiko giza espezieko ale ezin interesgarriago bat, zientzialariek galdutzat jotzen zutena... eta zer iruditzen zaizu, zientziaren zabalkundeari buruzko hausnarketa hori egin beharrean, nik neuk zabaltzen badut neure aurkikuntza aurkezpen horretan, artikulu baten bidez?

—Primeran, Joan Mari...

## HOMO SAMARIENSIS

edo

### VIRIDIANARENA EZ BEZALAKO BESTE HISTORIA BAT

Eta egun batean, Diogenes bezalaxe, gizon baten bila atera nintzen, zuzi bat eskuan, Altzako kaleetan barrena.

Baina ez dakit ongi hasi naizen, lehendabizi pentsatu eta gero egin egiten baitira gauzak, eta buruan nuena egin nuena baino lehenago azaldu beharko bainuke.

Ni ingeniaria naiz, eta zientzi gizona, beraz... edo zientzi gizona, hobeto, letretara jo bainuen aspaldi: aldaketa honek, ordea, beti utzi izan dit aho-sabaian halako zapore garratz bat, sentipen isla bat ere badena, zientziari traizio egin banio bezala; baina guztiok dakizue akzio eta erreakzioaren printzipioa, bai... eta traizioaren konpentsazio gisa gailendu ote zait neure joeratzu hau, zientziari neure ekarpentxo egiteko gogoia etengabe pizten didana? Baina zuek badakizue zer den *homo animalis* bat, baita *homo erectus* bat ere: *homo eructus*, barka... edo *homo korrokensis*, latin-euskara batuan. Bada, ildo horretatik, sarritan esaten nion neure buruari: "Zer izango litzateke espezie horiekin zerikusirik ez duen giza espezie berri bateko kidea aurkituko banu...? Nobel saria emango ote lidakete...?". Esan eta egin.

Aitortzen dut espezie horren bila ibili zirela bai Diogenes, bai Fedro eta bai beste batzuk ere, haien ahaleginak hutsean geratu ziren arren. Baina zergatik etsi behar nuen nik, san Francisco de Goya y Lucientes banuen patroia, eutsi Goyari...!?

Eta egun batean, Diogenes bezalaxe, gizon baten bila atera nintzen, zuzia eskuan, Altzako kaleetan barrena.

Baina ez dakit orain ere ongi hasi ote naizen, hemen emakume batzuk ikusten baititut, muturra okertzen hasiak dagoeneko —ezpainak okertzen hasiak, alegia: izan nadin politikoki zuzena behingoz—, zergatik, eta gizon hitza erabili dudalako "gizaki" beharko lukeen tokian, eta ez behin bakarrik, ez dakit zenbat aldiz baizik... Emakume hauei, baina —zuei, beraz—, ongi etorriko zaizue XIX. mendean bizi izan zèn Bischoff anatomista ezagunaren anekdota kontatzea; Bischoffen eginbeharretako bat giza burmuinak pisatzea zen: hiru urtetan ibili zen gizona —gizona baitzen— bere lan hartan, harik eta bere emaitzak argitaratu eta zabaldu zituen arte: gizonaren garunak, batzuetan, 1350 gramo pisatzen zituen, emakumearenak 1250 egiten zituen bitartean; Bischoff jauna, baina, gizon argia zen, logikoa bezain adimentsua, eta bere ondorioak atera zituen, jakina: baldin eta gizonaren garunak emakumearenak baino gehiago pisatzen bazuen, gizonak adimentsuago behar zuen emakumeak baino, ezinbestean: hain zen

begi-bistakoa ondorio hura, non bizitza osoan eutsi baitzion bere teoria hari, harik eta, hil zenean, haren garunak —Bischoff zientziari emana bizi izan zèn zientzialari eredugarria zen, garuna ere zientziari eman ziona, zer gutxiago...!— 1245 gramo pisatzen zituela egiaztatu zuten arte. Eta orain, galdera: Katalina Erausokoa Katalina zen bezala eta ez Katalino, Bischoff jauna benetan ote zen Bischoff jauna eta ez Bischoff anderea...?

Hala, bada, egun batean, Diogenes bezalaxe, gizon baten bila atera nintzen, zuzia eskuan, Altzako kaleetan barrena, neure santu patrioiari gomendatuta —eutsi Goyari!—... gizon baten bila nabil, gizon baten bila nabil... Eta banindoan eta banindoan —orain bai!—, eta gizon ustezko bat atera zitzaidan bidera.

—Aizu, gizona... —esan zidan.

—Ni ez naiz gizona: gizona naiz, barka... —moztu nuen—. Izan ere, gizona banintz, ez nintzateke orain nabilen bezala ibiliko... gizon baten bila bainabil, hain zuzen.

—Gizon baten bila zabiltzala...? Eta zer naiz ni, bada...?

Tipoa ongi jantzita zihoan, traje, korbata eta guzti. Puru bat ere bazuen ahoan, eta larruzko maleta txiki beltz distiratsu bat zeraman, esku batetik zintzilik. Itxuragatik, bankari bat izan zitekeen. Ez nenbilen oker, jarraian purua lurrera bota, arnasa sakon hartu eta eskuineko poltsikoa hasi baitzitziaion bat-batean taupaka, taup-taup, taup-taup, taup-taup... bihotzak bularretik poltsikorako bidea egin balio bezala. Dudaren bat banuen, baina, tipoak berak berehala argitu zidan:

—Bankari jaun txit agurgarria naizela ni gero!

Goitik beherainoko bankaria behar zuen, zinez, orduantxe ohartu bainintzen, halaber, bihotzak ez ziola taup-taup egiten, baizik eta txin-txin eta txin-txin. Esan nahi baita tipoa profesional hutsa zela, denbora bera ere kapitalaren aurpegieta-ko bat zela sinesten zuena; bankari jauna ez zegoen, ondorioz, nirekin denbora galtzeko prest, eta esaldia bukatu ahala ekin zion beste bati:

—Gizon baten bila zenbiltzan, eta aurkitu duzu: aurkitu nauzu! Eta orain emadazu dagokidan saria: merezi ere, merezi baitut sari bat, ezta...? Baina gaur egun ona dut, eta zaude lasai, merke aterako zaizu-eta: emadazu urrezko rolex bat, eta bakea...

Hitzetik hortzera etorri zitzaidan erantzuna:

—Gizonak, ordea, gizon izatea du sari, beste sari guztiak soberan... Ez ditut, beraz, zu bezalako *homo rolex*-ak atsegin.

—Ez nauzula atsegin? Baina zuk badakizu nor naizen...? —haserretu zitzaidan—. Megabank bankuko megaburua naiz, eta ez Euskadiko Kutxako txutxen-

dari edo enplegatutxo bat...! —“*un directorzuelo o un empleadillo de Euskadiko Kutxa*” esan zidan hitzez hitz—. Nik Egiptoko Piramideak ditut buruan, eta ez bigarren mailako hizkuntza batean egindako hixtegi entziklopedikoak<sup>1</sup>...

—Zu Bankarien Piramidean biziko zara, erpin-erpinean bizi ere... baina ez zara gizona: ez nik bilatzen dudan gizon klasekoa behintzat...

—Kaka zuri! —bota zidan, bere onetik aterata.

—Eta gogoratu orain esango dizudanaz —eta, guru-aurpegia jartzen nuela, ezin solemnekiago mintzatu nintzaion—: Megabank bankuko megaburua zara, bai, baina besterik esango duzu, beharbada, Hilkutxa Kutxako buruak OPA baten sareetan harrapa zaitzanean...

—Badakizu zer zaren zu...? Ero bat! Nori bururatzen zaio, izan ere, zuzi bat egun-argiz piztea...?

—Eta zuk noiz ikasiko duzu —erantzun nion, guru-aurpegiari eutsiz— ikusten duguna sarri-askotan itxura hutsa dela, eta egun-argiaren baitakoak direla gizonaren gaurik gautsuenak? Baina zu ez zara gizona: ez zara *homo robinhoo-diensis* bat, adibidez, ez *homo samariensis* bat, ez *homo gandhicus* eta ez *homo che-guevariformis* bat... Izan ere, zu *homo Botinis* bat zara, eta nola jakingo duzu, bada, zer den benetako gizon bat...?

—Zoaz pikutara, ergela!

—Agur, bai, jaun txit agurgarria...

Lehenengo ahaleginean huts egin nuen, bistan da, baina bigarrean ez, beharbada, eta berriro abiatu nintzen Altzako kaleetan barrena. Gizon baten bila nenbilen, bai... eta banindoan, banindoan... gizon baten bila nabil, gizon baten bila nabil... bat-batean estatua edo zutabe itxurako gizon bat geldiarazi nindue-nean: *homo cementus* nahastezin bat zen —edo *homo auditz-akularrensis* bat, bertsio modernoan—: ez esan ezetz, txikitatik bizi behar izan baitut horrelako jendeare-kin Altzan, tamalez.

—Aizu... —esan zidan; eta nola ez baitzekien nire izena, bizpahiru segundo-ko isilune bat zabaldu zen gure artean; baina tipoa ez zen tontoa, ezta gutxiago-rik ere, eta nola ikusi baitzuen eskua goian nuela, zuzia ere hantxe, berehala bete zuen buruko hutsunea—: Aizu, Zuzigoien jauna...

—Bai. Esan... —erantzun nion.

—Zera, gizon baten bila bazabiltza, nekez aurkituko duzu ni baino gizonago-rik...

---

<sup>1</sup> Esaldi hau ulertzeko, Euskadiko Kutxako zuzendaria bertan zegoela esan behar

Ongitxo ezagutzen bainuen, nik banekien hura ez zela bilatzen nuèn gizon klasea, baina, hala ere, bere arrazoiak azal ziezazkidan utzi nion:

—Hara: nire eginkizuna gizarte honetan etxeak egitea da, zenbat eta gehiago hobe, jendeak bere etxetxoak behar baitu zoriontsu izateko...

—Altzan, ordea, berdeguneak behar ditugu, bestela ere zementuz gainezka gaude-eta. Gainera, etxeak garesti saltzen dituzue, eta hala ibiltzen dira erosleak, soka beti lepoan estu: maileguen soka, hipoteken soka eta euriborrarena... Erosleen zoriona predikatzen duzue, baina, azkenean, soka horretan itotzen da zoriona eta zoritxar bihurtzen...

—Laguntza ofizialeko etxe merkeak ere hor daude —esan zidan—, herritarrei zozketa ezin inpartzialago batzuen bidez banatzen zaizkienak...

—Loteria, ordea, ez da Justizia... etxea ez baita aukera: etxea Eskubidea da! Baina boteretsuok hitzak hiztegietatik atera eta zeuen zerbitzuan jartzen dituzue, hitzik sakratuenak ere manipulatu eta etengabeko beherapenetan jarriz... Halaxe bihurtzen baituzue zuek Justizia loteria, Demokrazia demoniokrazia eta Bakea urardotutako saio instituzional, ez ur eta ez ardo... Hala doakigu, bai, mundua, doakigun bezala, hondamunduz hondamundu...

—Baina politika posibilismoaren artea da, eta... —esan zidan tipoak, politikan ere ibilia baitzen, itxuraz.

—Esaiozu hori, etxea ordaindu ezinik etxetik alde egin behar duen langabe pobre miserableari, esaiozu hori gose denari...

Nik ez dakit gizonezkoa erantzunik gabe gelditu ote zen, baina begiak nire zuzian ipintzen zituela, elkarrizketaren norabidea aldatu zuen:

—Aizu, zergatik daramazu zuzia piztuta, egunargia bada...?

—Altzako kaleetan ikusiko duzu bankari bat, beharbada, traje, korbata eta guzti, eta galdetu berari.

—“Gazte eta ero, zentzatu gero” dio esaera zaharrak, baina, aguretu arren, zu ez zara, ez, zentzatu, eta Erogoien deituko dizut hurrengoan...

Bigarren ahaleginean ere huts egin nuen, bistan da, baina hirugarrenean ez, beharbada, eta berriro abiatu nintzen Altzako kaleetan barrena. Gizon baten bila nenbilen, bai, eta hala jakinarazi nion Larraxoko auzoan ikusi nuèn giza talde bati: gizon baten bila nabil, gizon baten bila nabil... Eta orduan, taldetik bi tipo ziztuan berezi —ni bezalako gizonezko arrunt bi—, eta amen batean jarri ziren nire parean.

—Ni naiz zuk bilatzen duzun gizona —esan zidan batak erabakitasun handiz.

—Ez! —esan zuen besteak, ahotsa goratuz—. Ni naiz! —segitu zuen, bularra hanpatuz.

—Ni!

—Ni!

—Ni!

Nik hura ikusten nuen, ederki ikusten ere... Zuzia ere baneraman, gainera, tipo haien barru ikusezina ikusteko... baita sinestezina zirudiena orduantxe ikusi ere, bi gizonetzkoak hasi ez ziren, bada, bat-batean itxuraldatzen! Haiek, ordea, ez ziren ez intsektu ez zomorro bihurtu, Gregor Samsa bezala, Kafkaren Metamorfosia-ren protagonista, bi oilar baizik: atera zitzaizkien oinetan ezproinak; bete zitzaizkien gorputzak, gerritik gora, lumez; bihurtu zitzaizkien besoak hego eta sudur-ahoak moko; atera zitzaizen buruan gangar bana...

Eta bi oilarrak, jakina, beren berezko senaren mende, borrokan hasi ziren jarraian, biak lurrian gelditu arte, zaurituta eta leher eginda, kordea ere galduta, hilik ere bai, ausaz...

Eta gero, ezerezetik haize-zurrunbilo bat sortu zen, bi oilarrak istantean lumatu zituen, Diogenesen *homo Platonis* bi iduri.

Eta berriro jarri nintzen martxan, gizon baten bila... eta banindoan, banindotan... eta orduan esperimendu bat egitea bururatu zitzaidan: itzali nuen zuzia plaza bateko iturrian, zikindu nuen aurpegia, baita gainean neramatzàn jantziak ere, errauts beltzez bustiz; ekin nion bideari espaloi batetik, eta, halako batean, Kaskotik San Markorako bidean jada, hogeita bost bat metrora bi tipo ikusi —aurkako norabidean zetozkidan: gizonetzkoa bata eta emakumezkoa bestea—... eta orduan —orduantxe, hain zuzen ere—, txorabituarena egin eta ziplo erori nintzen lurrera era nabarmenean, antzeppen-saio bikainean: begiak itxita nituen, baina ez guztiz, probatu egin nahi bainuen samariar onik hurbilduko ote zitzaidan... Gizon-emakumeak, baina, hain jota gelditu ziren, antza, nire erakustaldiarekin, non, parean egokitu zitzaizkidanean, pausoa azkartu eta tximistak hartuak bezala igaro baitziren; gero, beste bospasei tipo pasatu ziren, eta haiek ere bazterrean utzi ninduten...

Jarraian, bat-batean, kotxe bat iritsi zen, goian argi urdin bat zuena eta barruan bi gizonetzko uniformedun, kotxetik berandu gabe atera zirenak; batak atleta planta zuen —itxuragatik *homo nullus nullus septimus* espeziekoa izan zitekeen: 007 agente bat, alegia—, eta besteak —gidaria ere bazenak— pisu pisutsuko boxeolari bat ematen zuen: *homo ramboticus* bat zen, inongo zalantzarik gabe, horiek ere ederki ezagutzen ditut-eta.

Bietan 007a zen buruzagia, eta hala, kotxetik atera bezain laster agindu zion rambotarrari patrikak eta jantzietako ezkutaleku guztiak mia eta araka ziezazkidan. Eta honek, ikusi zuenean kartera irekitzean paper guztiak behar bezala nituela —ez propaganda subertsiborik ez argazki konprometituri—, bere iritzia eman zion buruzagari:

—Morroia legezkoa da, baina begira iezaiozu bere itxurari: eskale bat ematen du... Gehiago ere esango nuke: eskale bat da, karteran ez baitu xentimorik ere.

Segidan, rambotarrak esan ziona berresteko-edo, 007a niregana hurbildu, nire inguruan bizpahiru bira egin —haren nazka eta higuina, niri begiratzeko moduan igartzen zitzaiona...!—, eta honela mintzatu zitzaion pisu pisutsuari:

—Arrazoi duk, gizon hau zabor hutsa duk, eta zabor-bilketako zerbitzuei deitu beharko zieagu.

Eta deitu zien 007ak zabor-bilketako zerbitzuei, igo ziren biak kotxera, alde egin zuten...

Eta hantxe gelditu nintzen ni berriro bakarrik, samariar on baten zain...

Eta pasatu ziren beste bospasei gizon-emakumezko, dozena bat... eta guztiak ere bazterrean utzi ninduten.

Eta orduan, ezustea...!

Lehenik, hogeita hamar bat metrora ikusi nuen: galtzak zituèn emakume bat zirudien, karro txiki bat zeramana, eta buruan zapi bat; hurrenik, haren irudia gogoratzen dut, niregana hurbiltzen eta hurbiltzen: emakume bat zen, ezpairik gabe, azal ilunekoa; azkenik, nire parera iristerakoan, ez zuen pausoa azkartu nigandik alde egiteko, bertan gelditu baitzen, nire harridurarako... Gero, atera zuen karrotik botila bat ur, eseri zen nire parean, heldu zidàn esku batez aurpegia, baita, besteaz lagunduta, botilatik ur pixka bat bota ere masailera...

Ai, uraren laztana...!

Eta begiak parez pare zabaldu nituen, jakina!

—Zer gertatu zuri...? —esan zidan emakumeak, zekièn euskara apurrean.

Eta ni, nola hitzik gabe bainengoen, isilik geratu nintzen.

—Ni Saharatik etorri... Fatima deitzen... —gehitu zuen.

Eta orduan, lurretik jauzi batean jaiki, Fatimari kopetan muxu bat eman —Fatimako Ama Birjina agertu ote zitzaidan, bada?—... eta garrasika hasi nintzen, jendeari berri ona ematen nion bitartean:

—Zatozte eta poztu zaitezte, *homo samariensis* bat aurkitu dut-eta! Bene-beneta-koa, gainera, aizue, Saharakoa den arren! Zatozte eta poztu zaitezte! Gizon baten bila nenbilen, eta aurkitu dut azkenean: emakume bat da... emakume hau da!

Eta hura esan ahala, berriro errepikatu nuen berria, berriro eta berriro...

Halako eskandalua sortu nuen, non, bat-batean, bi norabideetan zihoàn jendea nire ingurura bildu —berrogei-bat lagun, bai, bildu ginen, bankaria eta zementu-gizona tartean— eta galdezka hasi baitzitzazkidan, zer ote nuen hain

pozik eta hain neure onetik aterea egoteko...

Eta nik neure historia kontatu, eta gero bakoitzak bere iritzia eman zuen, batzar batean bageunde bezala.

—Ero bat da, ero hutsa —esan zuen bankariak—, ikusi ez dut, bada, lehen zuzi bat piztuta, egun-argia den arren...! Eta orain, entzun diozue: gizon baten bila zebilen, emakume bat aurkitu du... eta bera, hala ere, pozik! Auskalo mari-txu hutsa ere ez ote den...

—Bai, abizena ere halakoa du: Erogoien —esan zuen zementu-gizonak.

Baina haien artean bazegoen, agure xahar bat, nire alde mintzatu zena:

—Ez dakit ero bat den, baina begira iezaiozue, begiratu ongi: Einsteinen antza du... Eta jenioak ero samarrak ohi dira, bai, baina jenioak jenio dira, eta Altzan ez daude asko: ni eta bera, bera eta ni... *¡y pare Vd. de contar!*

Eskertu nizkion hitz kontsolagarriak agureari, baina nik egia zor dizut, entzule, eta jakizu ni, gehienik ere, Einsteinen txoferra izan nintekeela. Ezetz, ez naitzela jenioa, ez Einstengoien jauna ez antzekorik ezer, ederki ezagutzen dut-eta neure buru zuloz josia!

Gero, 007aren eta rambotarraren patruila iritsi zen, baita, haiekin batera, zabor-kamioia ere... bere gidariarekin, jakina, zeinak, kabinatik zintzilik bi oilar lumatu zeramatzalako-edo, irri ezin zabalagoa egiten baitzuen.

Eta orduan, halaxe hitz egin zuen 007ak automobilean zuen bozgorailutik, tonu ezin autoritarioagoan:

—Hau ezlegezko manifestazio bat da, eta mugi zaitezte, mugi-mugi... San Markoko zabortegeian bukatu nahi ez baduzue!

Hauxe da, bada, kontatu behar nizuena, entzule maiteok; baina jakin, badakit Euskal Herriko aurkikuntzarik garrantzitsuenek ere nekez egiten dutela aurrera azken bolada honetan, eta ea Veleiakoa baino hobeto doakidan...

Elhuyarreko kideok: nik egin dizuet eskatutako lana —hitz baten ekarpena ere egin dizuet, hiztegiaren bigarren ediziorako: *homo samariensis*, edo nahiago baduzue: *homo samariarra*—, eta ea orain zuek laguntzen didazuen...

Nobel saria ere emango digute, agian...

Baina hori ez da gauza segurua, eta hobe lunchari lehenbailehen ekiten badiogu, ezta...?

\* \* \*